

Eusko Jaurlaritzari eskatu diogu unibertsitate publikoa indartu dezan, behar den inbertsioa eginez



LAB sindikatuak deituta, martxoaren 19an elkarretaratzea burutu dugu Eusko Jaurlaritzaren aurrean, EHUK pairatzen duen azpifinantzaketa salatzen eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuari unibertsitate publikoa indartzeko eskatzeko.

EHUn dauzkagun arazo guztiak oinarri ekonomikoa ez izan arren, konpondu behar diren egoera asko finantzaketarekin lotura handia daukate:

- EHUn arduraldi partzalean aritzen diren irakasleek miseriazko soldatak jasotzen dituzte. Arduraldi osoko irakasle baten gehieneko irakaskuntza-kredituen % 75 ematen duten ordezkoko irakasleek nekez gainditzen dituzte 800 euroak, egiten dituzten ezinbesteko aktibitate batzuek ez baitaizkie ordaintzen. Neurri handi batean Eusko Jaurlaritzaren erantzukizuna da, 41/2008 dekretua aldatzea bere esku baitago.
- EHUKo langileok ez dugu berreskuratu duela hamarkada eta erdi galdutako erosahalmena, azken urteetako soldaten igoerak urriak izan baitira.
- Soldata ez nahikoak osatzeko 2006an sortu ziren osagarriak izoztuta mantendu ditu Eusko Jaurlaritzak urte horretatik.
- Irakasle-ikertzaile askok, hurrengo kategorietarako akreditazioa behin lortuta, urte asko itxaron behar dute promozionatu ahal izateko. Arrazoi ekonomikoak ere horren atzean daude.
- EHUKo plantilla ez da nahikoa jendartearen beharrei behar den moduan erantzuteko. Izan ere, sail eta

zerbitzu askotan langileek gehiegizko lan-karga daukate. Zentzu horretan, *Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (TEKAZEL)* / Irakasle eta ikertzaileak (IRI) ratioa igotzea beharrezkoa da.

- Eraikin askok konponketak behar dituzte. Itoginak, instalazioen eta altzarien narriadura... gero eta ohikoagoak dira.
- ...

Unibertsitate publikoak finantzaketa handiagoa behar du jendartearen beharrei erantzun ahal izateko, etorkizun hurbil eta urruneko profesionalak formatzeko, arlo guztietan garatu beharreko ikerketa egiteko eta gizarte moduan aurrera egiteko ezinbestekoa den pentsamendua eta eztabaida bultzatzeko ere. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak ez dio erantzuten behar horri, ez du betetzen bere beharra EAeko jendarteari begira. Adibide argia daukagu USLOk unibertsitate publikoen finantzaketari jasotzen duenaren aurrean adierazitako jarrera. USLOk 2030erako markatzen duen BPGren % 1etik oso urrun mantentzen da EHUren finantzaketa, BPGren % 0,4 ozta-ozta gaintuta, eta ez da ezagutzen ezer ehuneko horretara heltzeko USLOk berak ezartzen duen batzordeari buruz, duela urte bat sortuta egon behar zena. Horrez gain, sailburuaren hitzetan hautematen da helburu hori ez betetzeko nahasmen interesatua, finantzaketa-igoera horretan Eusko Jaurlaritzak duen erantzukizunari pisua kenduz, alde batetik, eta unibertsitate publikora bideratutako finantzaketa Eusko Jaurlaritzak unibertsitate pribatuetara bideratzen duen finantzaketarekin nahastuz; (izan ere, BPGren % 0,6 inguru bideratzen dela esatean, euskal sistema unibertsitarioko unibertsitate guztiak sartzen ditu, baina USLOk espresuki adierazten du BPGren % 1a publikoei bakarrik eragiten diela).

Aldi berean, gero eta diru eta erraztasun gehiago ematen zaie unibertsitate pribatuei (azken adibidea EDA drinks & wines, Gastronomy Open Ecosystem eta Euneiz unibertsitate elitistetan daukagu).

Bada ordua Eusko Jaurlaritzak unibertsitate publikoa gutxiesten duen norabidea albo batera uzteko, unibertsitate publikoa hobetzeko daukan eskumenak erabiltzeko, eta EHUK behar duen finantzaketa publikoa bermatzeko. Horren bidez, guztiontzako lan-baldintza duinak bermatu eta unibertsitateak pairatzen dituen hainbeste arazori konpontzeko bidea eman behar zaio, jendartearen zerbitzura dagoen unibertsitatea indartzeko bidean.